

BEASAINGO UDALA ETA GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.-REN ARTEKO HITZARMENA, GOIERRI ESKUALDEAN IKUS-ENTZUNEZKOEN BIDEZ HURBILEKO GERTAKARIEN INFORMAZIOA EUSKARAZ EMATEKO.	CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y GOIHERRIKO IKUSKARI, S.L. PARA LA DIFUSIÓN EN EUSKERA DE LA INFORMACIÓN AUDIOVISUAL DE LA ACTUALIDAD DE PROXIMIDAD EN LA COMARCA DEL GOIERRI.
Beasainen, 2026ko maiatzean BILDURIK Alde batetik, Leire Artola Ugalde andrea BEASAINGO UDALAREN (IFK, P2002100B), ordezkari gisa, Alkatea den heinean, Korporazioa osatzeko bileran 2023-06-17an kargu hori betetzeko izendatua izan zelako. Egintza honetarako ahalmena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikulua ematen dio. Bestalde, GOIHERRIKO IKUSKARI S.L. B20806840 IFK zenbakiduna eta egoitza Ordizian duena, Mallutz kaleko 18 zenbakian, egintza honetan Yon Aldanondo Albisu jaunak ordezkaturik, adinez nagusia dena, 34108860K NA zenbakiduna, helburu hauetarako helbidea Ordiziako Mallutz kaleko 18 zenbakian duena. Egintza honetarako ahalmena eman zion Administrazio Kontseiluak 2003-04-14ko bileran.	Beasain, mayo 2026 REUNIDOS De una parte, Dña. Leire Artola Ugalde, en representación del AYUNTAMIENTO DE BEASAIN (CIF P2002100B), en su condición de Alcaldesa, como consecuencia de haber sido nombrada para desempeñar dicho cargo en la sesión constitutiva de la Corporación celebrada el 17-06-2023. Está facultada para este acto por el artículo 21,1b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. De otra parte, GOIHERRIKO IKUSKARI S.L. con CIF B20806840 y domicilio en Ordizia, calle Mallutz, 18, representado en este acto por D. Yon Aldanondo Albisu, mayor de edad, con DNI 34108860K, con domicilio a estos efectos en C/Mallutz, 18 de Ordizia. Este acto fue facultado por el Consejo de Administración en sesión celebrada el 14-04-2003.
AURREKARIAK I.- Udalaren <u>eskumen</u> propioen artean ondorengoak daude: 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 7. artikulua. Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez. - 7.5.- Toki-erakundeen euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta	ANTECEDENTES I.- Entre las competencias propias del municipio se encuentran las siguientes: LEY 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. Artículo 7. Competencias de las entidades locales y de los municipios en relación con el uso del euskera. - 7.5. – Para el ejercicio de las competencias reconocidas en materia de euskera, las entidades locales podrán suscribir convenios, crear o intervenir en mancomunidades, consorcios, asociaciones y otras entidades

elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin. - 17.1.26) artikulua. Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea.	supramunicipales, así como recurrir a otras formas de colaboración con entidades públicas y privadas. - Artículo 17.1.26). La redacción, aprobación y gestión de los planes municipales de promoción del uso del euskera.
II.- Goiherriko Ikuskari S.L.-ren 2025/02-18ko estatutueta 2. artikuluan jasota dagoen bezala elkartearen helburuak honakoak dira:	II.- Los fines de la Asociación recogidos en el artículo 2 de los Estatutos de Goiherriko Ikuskari S.L de fecha 18/02/2025 son:
<i>“Goiherriko Ikuskari S.L.k helburu sozial hau du: Gizarte-komunikabide mota guztiak kudeatzea eta ustiatzea, norberarenak zein besterenak, edozein euskarri edo bitartekotan; informazioaren, komunikazioaren, ikus-entzunezkoen, irratia, telebistaren, Interneten, argitaletxeen eta merkataritza elektronikoaren industriarekin lotutako era guztietako jarduerak garatzea; horiek sustatzea eta ustiatzea, jarduera horien sustapen edo osagarri gisa produktuak eta zerbitzuak merkaturatzea barne. Gizarte-hedabideen eta, zehazki, telebistaren jarduera horiek euskaraz egin ahal izango dira. Gainera, jarduera orokor horien barruan sartzen da telebistako, irratiko eta hedabide inprimatu eta digitaletako programak sortzea, garatzea eta zabaltzea, bai eta merkaturatzea ere, hedatze-jardueraren zikloa osatuz, euskarazko gizarte-hedabide gisa.”</i>	
III.- Bi aldeek hitzarmena burutzeko interesa dute euskararen normalizazioan eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko elkarlana egiteko.	III.- Que ambas partes están interesadas en llevar a cabo el convenio para colaborar en la normalización del euskera y en la garantía de los derechos lingüísticos de la ciudadanía.
IV.- Hori dela eta, Goiherriko Ikuskari S.L.-k memoria bat aurkeztu du proposatzen dituzten jarduerarekin batera eta horien inguruko aurrekontuarekin.	IV.- Por ello, Goiherriko Ikuskari S.L. presenta una memoria con la actividad que proponen y su presupuesto.
V.- Uka ezina da diruz lagundu nahi dena udalaren eskumen eremuaren alorrean dagoela, eskumenaren eta gastuaren arteko lotura hertsia dagoela eta interes publikoa duen helburu bat sustatzearekin bat datorrela.	V.- Es innegable que lo que se pretende subvencionar se encuentra dentro del ámbito competencial municipal, que existe una estrecha relación entre la competencia y el gasto y que se corresponde con el fomento de un fin de interés público.
Arrazoi horregatik eta kontuan izanda Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 2. artikulua aurreikusten dituen xehetasunak betetzen direla, 2026. urteko udal aurrekontuan 0230.471.335.40.02 partida izenduna kontsignatu da, 41.883,00 €koa, honako proiektu hauek diruz laguntzeko:	Por este motivo y teniendo en cuenta que se cumplen las especificaciones previstas en el artículo 2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se ha consignado en el presupuesto municipal del año 2026 una partida nominativa 0230.471.335.40.02 de

1. Lantaldearen egonkortasuna eta profesionaltasuna. - Lantalde finko eta konprometitua izatea ezinbestekoa da tokiko komunikabide batek jarraitortasuna izan dezan. 2026an helburua da lan-baldintza duinak bermatzea, lan-orduak egokitzea eta kontratazio egonkorak sendotzea. - Profesionaltasuna eta etengabeko formakuntza: digitalizazioak eta formatu berriek etengabeko egokitzapena eskatzen dute. 2026an aurreikusten da ikus-entzunezko berrikuntzan, eduki digitalen kudeaketan eta adimen artifizialaren aplikazio arduratsuan prestakuntza saioak indartzea.	41.883,00 €, para subvencionar los siguientes proyectos: 1. Estabilidad y profesionalidad del equipo de trabajo. - Contar con un equipo de trabajo fijo y comprometido es imprescindible para que un medio de comunicación local tenga continuidad. En 2026 el objetivo es garantizar unas condiciones de trabajo dignas, adecuar las horas de trabajo y consolidar contrataciones estables. - Profesionalidad y formación continua: la digitalización y los nuevos formatos requieren una adaptación constante. En 2026 se prevé reforzar las sesiones formativas en innovación audiovisual, gestión de contenidos digitales y aplicación responsable de inteligencia artificial.
2. Euskara eta komunitatea: GITBren ardatz estrategikoa. - GITBren izaera bera euskarazko tokiko komunikabide izatean oinarritzen da. 2026rako estrategiak euskara eta komunitatea erdigunean jartzen ditu. - GITB euskararen normalizaziorako tresna eraginkorra da, izan ere eguneroko erabilerarako erreferentea eskaintzen du, euskarazko informazioa, entretenimendua eta kultura eskainiz eta funtzio sozial garrantzitsua betetzen du batez ere gazteen artean. - Gertutasunak balio erantsia ematen dio, GITBren balio nagusietako bat da herritarrek protagonistak izatea albistegietan, kultur saioetan, kirolean eta ekitaldi berezietan. Hori dela eta, 2026an aurreikusten da herritarren parte-hartzea areagotzea, ekarpenak,	2. El euskera y la comunidad: eje estratégico del GITB. - La propia naturaleza de GITB se basa en la existencia de un medio de comunicación local en euskera. La estrategia para 2026 pone el euskera y la comunidad en el centro. - GITB es una herramienta eficaz para la normalización del euskera, ya que ofrece un referente de uso cotidiano, ofrece información, entretenimiento y cultura en euskera y desempeña una importante función social sobre todo entre la juventud. - La proximidad le aporta un valor añadido, uno de los principales valores de GITB es que la ciudadanía sea protagonista en informativos, programas culturales, deporte y eventos especiales. Por ello, en 2026 se prevé incrementar la participación ciudadana, haciendo visibles las aportaciones, opiniones e iniciativas locales.

iritziak eta tokiko ekimenak ikusgarri bihurtuz. - Tokiko hedabide batek komunitatearen kohesioa sendotzen du: herrien arteko lotura, bailara mailako identitatea eta elkartasun sentimendua indartuz.	- Un medio de comunicación local refuerza la cohesión comunitaria: el vínculo entre los pueblos, reforzando la identidad a nivel de comarca y el sentimiento de solidaridad
- Aurrekontu orekatua eta kudeaketa arduratsuaren garrantzia. 2026ko erronka nagusietako bat oreka ekonomikoa mantentzea da proiektuaren iraunkortasuna bermatzeko. - Goierriko hedabideen bateratzea: etorkizuneko aukera estrategikoa. 2026an indarra hartuko du Goierriko hedabideen bateratzeak. Prozesu honek aukera estrategiko handiak eskaintzen ditu: sinergiak eta eraginkortasuna, proiektu sendoagoa eskualde mailan eta euskara eta tokiko komunikazioa indartzeko aukera.	- Presupuesto equilibrado e importancia de la gestión responsable. Uno de los principales retos para 2026 es mantener el equilibrio económico para garantizar la sostenibilidad del proyecto. - La unificación de los medios de comunicación del Goierri: una oportunidad estratégica de futuro. En 2026 cobrará fuerza la unificación de los medios de comunicación del Goierri. Este proceso ofrece grandes oportunidades estratégicas: sinergias y eficiencia, un proyecto más sólido a nivel de comarca y una oportunidad para reforzar el euskera y la comunicación local.
- Edukien jarraipena eta estrategia multiplataforma: telebista, digitala, sare sozialak eta irratia. Telebista linealak izaten jarraitzen du komunitatearentzat erreferentziazko leihoa, bereziki albistegiak, kirola eta kultur saioen bidez. Hala ere 2026an funtsezkoa izango da: • Telebistan sortutako edukiek jarraipena izatea gainerako plataformetan. • Saio nagusien edukia zatika eskaintzea formatu digitalera egokituta.	- Seguimiento de contenidos y estrategia multiplataforma: televisión, digital, redes sociales y radio. La televisión lineal sigue siendo la ventana de referencia para la comunidad, especialmente a través de programas informativos, deportivos y culturales. Sin embargo, en 2026 será fundamental: • Continuidad de los contenidos generados en televisión en el resto de plataformas. • Ofrecer el contenido de las sesiones principales de forma fraccionada y adaptada al formato digital.

• Telebistako edukiari bigarren biritza ematea, ikusleen nahi duten eran kontsumitu ahal izateko. Digitalaren garrantzia: webgunea eta aplikazio berria. 2026an digitalak izango du hazkunde-potentzial handiena, horregatik webgunea izango da edukien artxibo nagusia eta kontsultarako tresna nagusia. Aplikazio berriak komunitatearekin lotura zuzena indartzeko aukera emango du: edukiak lehenago eskaintzea, abantailak, zozketak eta tokiko zerbitzuen gida integratuz. Era berean, sare sozialak ikusgarritasuna emango diote eta gazteengana iristeko giltza izango dira. Edukien zabalkunde azkarra eta zuzena ahalbidetzen dute. Gazteengana iristeko kanal nagusietakoak dira, formatu labur, bisual eta dinamikoen bidez eta komunitatearekin harreman zuzenagoa sortzen dute.	• Dar una segunda vida al contenido televisivo para poder consumir en la forma deseada por el público. La importancia del digital: web y nueva aplicación. En 2026 el mayor potencial de crecimiento será el digital, por lo que la web será el archivo principal de contenidos y la principal herramienta de consulta. La nueva aplicación permitirá reforzar el vínculo directo con la comunidad: ofrecer los contenidos antes, integrando ventajas, sorteos y guía de servicios locales. Asimismo, las redes sociales le darán visibilidad y serán la clave para llegar a los jóvenes. Permiten una difusión rápida y directa de los contenidos. Son uno de los principales canales de acceso a la juventud a través de formatos breves, visuales y dinámicos que generan un contacto más directo con la comunidad.
- Goierri irratiak eguneroko gertutasuna eskaintzen du, autoan lanean edo etxean entzun daitekeen formatuarekin. Telebistan lantzen diren gai askok irrati bidezko jarraipena izan dezakete: elkarriketak, laburpenak eta iritzi-tarteak. Irratia tresna egokia da komunitatearen ahotsa jasotzeko, parte-hartze zuzenaren bidez.	- Goierri irratia ofrece una cercanía cotidiana con un formato que se puede escuchar en el coche en el trabajo o en casa. Muchos de los temas que se trabajan en la televisión pueden tener continuidad a través de la radio: entrevistas, resúmenes y espacios de opinión. La radio es una buena herramienta para recibir la voz de la comunidad a través de la participación directa.
VI.- Horren ondorioz, bi alderdiek elkarri kontratatze eta betebeharrak hartzeko gaitasuna aitortu diote eta hitzarmen hau honako klausula hauen arabera idaztea adostu dute:	VI.- Que, en consecuencia, ambas partes se reconocen recíprocamente capacidad para contratar y obligarse y acuerdan la redacción del presente Convenio conforme a las siguientes
ESTIPULAZIOAK <u>Lehenik.</u> Helburua: Hitzarmen honen xedea esku hartzen duten alderdien eskubideak eta	ESTIPULACIONES <u>Primero.</u> Objeto: El presente Convenio tiene por objeto regular los derechos y obligaciones de las

betebeharrak arautzea da, Goiherriko Ikuskari S.L.-ri 41.883,00 €ko dirulaguntza emanez.	partes intervinientes, mediante la concesión de una subvención a Goiherriko Ikuskari S.L. por un importe de 41.883,00 €.
<u>Bigarren.</u> <u>Goiherriko Ikuskari S.L.-ren betebeharrak:</u> 1.- Diruz lagundutako jarduerak burutzea. 2.- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen Lege Orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea. 3.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea. 4.- Udal organo eskudunak edo udal kontuhartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera. 5.- Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako dirulaguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.	<u>Segundo.</u> Goiherriko Ikuskari S.L. se obliga a: 1.- Realizar las actividades subvencionadas. 2.- No estar incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario establecidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, durante la vigencia del presente convenio, y hallarse al corriente del pago de obligaciones tributarias con el Ayuntamiento. 3.- Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. 4.- Someterse a las actuaciones de comprobación y control, a efectuar por el órgano municipal competente o por la Intervención municipal, con la obligación de estos de facilitar cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización y control del destino de las cantidades entregadas, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 38/2003. 5.- Comunicar al Ayuntamiento la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.
6.- Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean. 7.- Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, onuradunak aldeztu aurretik eskatuta Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta	6.- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de control y comprobación. 7.- Dar la adecuada publicidad y difusión del carácter público de la financiación de las actividades subvencionadas, mediante el empleo de los anagramas y logotipos facilitados

logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilita.	por el Ayuntamiento de Beasain previa solicitud del beneficiario, en carteles, placas conmemorativas, material impreso, medios electrónicos y audiovisuales y menciones en medios de comunicación.
8.- Euskara sustatzea denez hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xedea, eta kontuan hartuta hedabideek nolako garrantzia daukaten hizkuntza-normalizazioan, entitate onuradunak berariaz zainduko du euskararen egokitasuna bere jardun osoan. Aintzakotzat hartuko ditu Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak. Hizkuntzaren egokitasuna hobetze aldera, neurriak hartuko ditu entitateak. Dirulaguntzaren onuradunak hizkuntzaren tratamendua aurreikusi egingo du hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzerakoan edo honakoak egiterakoan: bilerak, hitzaldiak, jendaurreko ekitaldiak, idatzizko komunikazioa (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharra...), megafonia, web-orria, WhatsApp-taldea...	8.- Dado que el objeto de la subvención que se concede a través del presente convenio es el fomento del euskera, y teniendo en cuenta la importancia de los medios de comunicación en la normalización lingüística, la entidad beneficiaria velará por la idoneidad del euskera en toda su actuación. Tendrá en cuenta las normas y recomendaciones de Euskaltzaindia. La entidad adoptará medidas para mejorar la idoneidad lingüística. El beneficiario de la subvención preverá el tratamiento lingüístico en la contratación de servicios o la realización de reuniones, conferencias, actos públicos, comunicación escrita (hojas informativas, carteles, cartas, notas...), megafonía, página web, grupo de WhatsApp... con terceros.
9.- Dirulaguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea. 10.- Diruz lagundutako jardueretan gerta litezkeen kalte guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izatea.	9.- Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 37 de la Ley General de Subvenciones. 10.- Disponer de una póliza de responsabilidad civil que cubra todos los daños que se puedan producir en las actividades subvencionadas.
<u>Hirugarren.</u> <u>Beasaingo Udalaren betebeharrak:</u> Goiherriko Ikuskari S.L.-ren 2026ko proiektuak garatzen laguntzeko, Beasaingo Udalak dirulaguntza nominatibo gisa, 41.883,00 € ordainduko dio, jarraian adierazitako moduan: - <u>1. ordainketa 33.506,40 eurokoa</u> (dirulaguntzaren %80), hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere egiaztatu bada onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen	<u>Tercero.</u> Obligaciones del Ayuntamiento de Beasain: Para contribuir al desarrollo de los proyectos de Goiherriko Ikuskari, S.L. en 2026, el Ayuntamiento de Beasain le abonará, en concepto de subvención nominativa, la cantidad de 41.883,00 €, en la forma que se indica a continuación: - <u>1º pago por importe de 33.506,40 euros</u> (80% de la subvención) tras la firma del convenio, en concepto de pago anticipado, siempre que se haya acreditado que el beneficiario se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, edozein ordainketa egin aurretik, azken agiriekin indarra galtzen badu Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta egingez.	La acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, exigida en el artículo 22 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, con carácter previo a la realización de cualquier pago, se verificará por el Ayuntamiento mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto.
Hala ere, onuradunak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz. - <u>2. ordainketa 8.376,60 eurokoa</u> (dirulaguntzaren %20), zuriketa aurkezten dutenean.	No obstante, el beneficiario podrá oponerse expresamente a dicha verificación debiendo aportar por su cuenta los certificados actualizados que acrediten tal condición. - <u>2º pago de 8.376,60 euros</u> (20% de la subvención), a la presentación de la justificación.
<u>Laugarren.</u> <u>Diruz lagundu daitezkeen gastuak:</u> Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena. Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango: a) Banku kontuetako interes zordunak. b) Interesak, errekariguak eta zigor administratibo edo penalak. c) Prozedura judizialetakoko gastuak. d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke. e) Errentaren gaineko zergak.	<u>Cuarto.</u> Gastos subvencionables: Serán subvencionables los gastos estrictamente necesarios, que estén vinculados de manera indubitada a la naturaleza de la actividad y se generen antes del fin del plazo previsto para la ejecución de las actividades subvencionadas. Se entenderá por gasto ejecutado aquel que haya sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del plazo de justificación establecido en este convenio. En ningún caso serán gastos subvencionables: a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias. b) Intereses, recargos y sanciones administrativas o penales. c) Gastos de procedimientos judiciales. d) Los impuestos directos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación. e) Los impuestos sobre la renta.
<u>Bosgarren.</u> <u>Gastuak justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentuak:</u>	<u>Quinto.</u> Plazo y documentación a presentar para la justificación de los gastos:

2027ko maiatzaren 31rako izandako gastuen justifikazioa aurkeztu beharko da. Zuriketa dokumentuak: • Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotea. • Burututako proiektu eta jardueren memoria. Baita ere adieraziko da diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa nola jakinarazi den. • Jardueren gastuaren justifikazioa: - Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak. - Finantzaketa iturri bat baino gehiago erabili bada, adieraziko da Beasaingo Udalak zer ehuneko finantzatu duen, gastu horri dagokionez. - Diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda sinatuta. - Diruz lagundutako jardueraren finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita. - Gastuak egiaztatzeko, Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa inskribatutako pertsona edo sozietate auditore baten txostena. Erakundearen jardueraren bakarra dirulaguntza izendun honetarako proiektu komunikatiboa denean, erakunde osoaren kontu auditatuak aurkeztu beharko ditu; baina erakundeak dirulaguntza deialdi honetara aurkeztutako proiektuaz gain beste jardueraren desberdin batzuk baldin baditu, orduan kontuen auditoria espezifikoa da aurkeztu beharko	Se deberá presentar la justificación de los gastos incurridos antes del 31 de mayo de 2027. Documentos de justificación: • Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. • Memoria de los proyectos y actividades realizadas. Asimismo, se indicará cómo se ha comunicado el carácter público de la financiación de las actividades subvencionadas. • Justificación del gasto de las actividades: - Una relación clasificada de los gastos e inversiones, con identificación del acreedor y del documento, su importe y las fechas de emisión y pago. - En el caso de que se haya utilizado más de una fuente de financiación, se indicará el porcentaje que el Ayuntamiento de Beasain ha financiado respecto a dicho gasto. - Relación firmada de los gastos e ingresos del proyecto o actividad subvencionada. - Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia. - Para la verificación de los gastos, informe de una persona o sociedad auditora inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas. Cuando la única actividad de la entidad sea el proyecto comunicativo para esta subvención nominativa, deberá presentar las cuentas auditadas de toda la entidad; no obstante, en el caso de que la entidad disponga de otras actividades diferentes al proyecto presentado
---	---

duena, deialdi honetara aurkeztutako proiektua soilik auditatutako duena hain zuzen ere.	a esta convocatoria de subvención, será necesario presentar una auditoría específica de cuentas, en la que únicamente se audite el proyecto presentado a esta convocatoria
• Euskara eta berdintasun klausulak bete direla egiaztatzen duen ziurtagiria, hitzarmenaren sinatzaileak sinatuta. • Hitzartutako proiektuak eta jarduerak aurrera eramateko gainfinantziatorik ez dela egon ziurtatzen duen agiria, hitzarmenaren sinatzaileak sinatuta.	• Certificación acreditativa del cumplimiento de las cláusulas de euskera e igualdad, firmada por la persona firmante del convenio. • Certificado firmado por el firmante del convenio de no existencia de sobrefinanciación para la ejecución de los proyectos y actividades comprometidas.
<u>Seigarren.</u> <u>Beste laguntza batzuekin bateragarritasuna:</u> Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundetakoak badira ere. Zentzu horretan eta dirulaguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako dirulaguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Finantzaketan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.	<u>Sexto.</u> <u>Compatibilidad con otras ayudas:</u> Esta subvención será compatible con todas aquellas subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, de la Unión Europea o de organismos internacionales. En este sentido, y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 19.3 de la Ley General de Subvenciones, el importe total de las subvenciones percibidas en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada. Si se produjera un exceso de financiación sobre el coste del proyecto o actividad, el beneficiario deberá reintegrar el importe percibido junto con los intereses de demora, adjuntando las correspondientes cartas de pago a la justificación. Procederá el reintegro a las entidades concedentes de las cantidades sobrantes en proporción a las subvenciones concedidas por cada una de ellas.
Hala ere, baldin eta Beasaingo Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.	No obstante, si el Ayuntamiento de Beasain advirtiera la existencia de un exceso de financiación, exigirá el reintegro de la cantidad correspondiente al exceso, hasta el límite de la subvención concedida por el mismo.

Jarduerak finantzatzeko, dirulaguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.	Cuando las actividades hayan sido financiadas, además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá indicarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.
<u>Zazpigarren.</u> <u>Hitzarmenaren iraupena:</u> Hitzarmen honen indarraldia, 2026-12-31artekoa izango da eta ezin izango da luzatu. <u>Zortzigarren.</u> <u>Jarraipen, zaintza eta kontrol mekanismoak:</u> Hitzarmenaren betearazpenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, batzorde bat sortuko da, kide hauek osatua: - Udal-erakundearen aldetik, Alkatea eta Kultura eta euskara teknikaria. - Goiherriko Ikuskari S.L.-ren aldetik, Yon Aldanondo Albisu, zuzendaria.	<u>Séptimo.</u> Duración del convenio: La vigencia del presente Convenio será hasta el 31/12/2026, sin posibilidad de prórroga. <u>Octavo.</u> Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control: Para el seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del Convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes, así como para resolver las dudas de interpretación del mismo, se crea una Comisión integrada por los siguientes miembros: - Por parte de la entidad municipal, la Alcaldesa y la Técnico de Cultura y Euskera. - Por parte de Goiherriko Ikuskari S.L., Yon Aldanondo Albisu, Director.
<u>Bederatzigarren.</u> <u>Alderdien arteko jakinarazpenak eta komunikazioak:</u> Hitzarmen honen esparruan egiten diren jakinarazpenak eta komunikazioak honako pertsona hauei bidali beharko zaizkie: Udalaren aldetik: Ane Barandiaran Lizarralde, Kultura eta Euskara teknikaria. Goiherriko Ikuskari S.L.-ren aldetik: Yon Aldanondo Albisu, zuzendaria. <u>Hamargarren.</u> <u>Onartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak:</u> Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da. Dirulaguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala	<u>Noveno.</u> <u>Notificaciones y comunicaciones entre las partes:</u> Las notificaciones y comunicaciones que se realicen en el marco del presente Convenio deberán dirigirse a las siguientes personas: Por parte del Ayuntamiento: Ane Barandiaran Lizarralde, Técnica de Cultura y Euskera. Por Goiherriko Ikuskari S.L., Directora Yon Aldanondo Albisu. <u>Décimo.</u> <u>Consecuencias del incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos:</u> El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes deberá ser comunicado a la parte incumplidora para que en un plazo determinado cumpla con las obligaciones y compromisos que se consideran incumplidos. Transcurrido el plazo establecido, si persistiera el incumplimiento, se resolverá el convenio. En el supuesto de que el beneficiario de la subvención incumpliera las obligaciones y compromisos asumidos, deberá reintegrar la

itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.	parte proporcional del importe concedido más los intereses de demora que correspondan desde el momento del pago de la subvención.
Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta dirulaguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.	Procederá el reintegro total o parcial de las cantidades percibidas en el supuesto de incumplimiento de las condiciones previstas en el presente convenio o de los requisitos de justificación establecidos por la intervención municipal u órgano competente, así como en los supuestos previstos en el artículo 37 y siguientes de la Ley General de Subvenciones.
<u>Hamaikagarren.</u> <u>Hitzarmena bertan behera geratzea:</u> 1- Epea amaitutakoan. 2- Bi aldeek espresuki horrela adosten dutenean. 3- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen ez dituztenean. 4.- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala. Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez. Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan. Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.	<u>Undécimo.</u> <u>Resolución del convenio:</u> 1- Al finalizar el plazo. 2- Por mutuo acuerdo expreso de las partes. 3- Incumplimiento de las obligaciones asumidas por las partes. 4.- Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio. La resolución del convenio extinguirá las obligaciones y compromisos asumidos por las partes, así como la liquidación de las prestaciones. A estos efectos, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público en relación con los efectos de la resolución y el régimen de liquidaciones e indemnizaciones. Los objetivos del Convenio se entenderán cumplidos cuando se haya cumplido su objeto en condiciones aceptables para ambas partes. En el caso de que hubiera actuaciones en proceso de ejecución, las partes, a propuesta de la comisión de seguimiento, vigilancia y control, podrán acordar el seguimiento y finalización de las actuaciones en curso, estableciendo un plazo improrrogable para su finalización.
<u>Hamabigarren.</u> <u>Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio aplikagarria:</u> Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa	<u>Decimosegundo.</u> <u>Naturaleza y jurisdicción aplicable:</u> De acuerdo con el artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, el presente convenio tiene naturaleza jurídica administrativa y, en

administratiboa da, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da eskumena duena. Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebartziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira. Eta aurreko guztiarekin adostasun frogatzat, bildutakoek hitzarmen hau sinatu dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean	consecuencia, es competente la jurisdicción contencioso-administrativa. Las controversias que pudieran surgir sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos que pudieran derivarse de la aplicación del presente Convenio se resolverán por acuerdo entre las partes y, en su defecto, por la jurisdicción contencioso-administrativa. Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, los reunidos firman el presente Convenio en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento
---	---

BEASAINGO UDALA
Leire Artola Ugalde
Alkatea

GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.
Yon Aldanondo Albisu
Zuzendaria

DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN AURREKONTUA
2026. URTEA

AURREKONTUA / PRESUPUESTO 2026	
GASTUAK / GASTOS	
LANGILE GASTUAK	357.289,05 €
Ordainsariak	274.835,92 €
Gizarte Segurantzak	82.453,13 €
FUNTZINAMENDUA	175.440,88 €
Alokairua	18.487,04 €
Musika eta irudi eskubideak (SGAE)	14.324,96 €
Ekipoen alokairua, online zerbitzuak	4.886,96 €
Mantenimendu eta matxurak konpontzea	10.389,60 €
Beste profesionalak	24.652,16 €
Ikusentzunezko produkzioak	30.000,00 €
Kanpo produkzio eta erosketak	72.700,16 €
ZEHARKAKO GASTUAK	12.904,32 €
Garbiketak	1.672,32 €
Auditoriak	3.952,00 €
Erosketak bulegoko materiala	2.080,00 €
Bailarako hedabideak batu	5.200,00 €
SEINALE BANAKETA	27.456,00 €
GASTUAK GUZTIRA	573.090,25 €
SARRERAK / INGRESOS	
FUNTZIONAMENDI PROPIOA	227.688,37 €
Ikusentzunezkoen produkzioa	30.000,00 €
Sarrera propioak	197.688,37 €
FINANTZAKETA PUBLIKOA	345.401,88 €
Udalak	96.200,00 €
Foru Aldundia	232.701,88 €
Eusko Jaurlaritza	16.500,00 €
SARRERAK GUZTIRA	573.090,25 €

